

Noaia!!



Botoa emateko
garaia iritsi da

Amaia Zubiria

Kantuz sortu eta kantuz bizi

PAGOA Gorri

1,80 €



Euskal garagardo jatorra

ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

III. APARTASUNA
Baserriak eta baserriak
eta baserriak eta baserriak
eta baserriak eta baserriak
eta baserriak eta baserriak



FUNERARIA GONZALEZ

Tel: 943.36.21.63
608.16.77.92 eta 660.38.86.52



USURBILGO EHORZTETXEA

Zerbitzu azkarra eta etengabea 24H.
Belatoki guztietan zerbitzuak.
Lekualdaketak, hilarriak, eskelak...
Ospitale zentru eta egoitzetan ere.
Seguru konpani guztiak

Muna lurra Kalea 8

I. URRUZOLA ARROZTEGIA

**Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera**

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea



Oria etorbidea 4, behea
(Errekato jatetxearen ondoan) **LASARTE**
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131

Albisteak iruditan !!

Txikitutako zakarrontziak

Zakarrontziak dira irudian azaltzen direnak. Azken bolada honetan asko izan dira txikituak izan direnak. Eta ez pentsa erraza denik horrelako zakarrontzi bat botatzea. Lurrari itsatsita daude, zementu eta guzti. Ikusi irudiaren ezkerretara dagoen zutabea.

Birziklatu, berrerabili eta horrelako kontuak denon ahotan dauden garaian, bitxia da zenbaitzuk hartzen dituzten "lanak". Beste zereginik ez al dute izango?



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

LARUNBATEAN HASIKO DA PLIS, PLAS **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

SAGARDO EGUNA, IRUDITAN **8. OR.**

UDAL HAUTESKUNDEAK, AZKEN TXANPAN **10. OR.**

AURTEN, HAUTES-MAHAI BAT GEHIAGO **11. OR.**

AMAIA ZUBIRIAREKIN SOLASEAN **12. OR.**


HITZALDIA ANTOLATU DU HITZ AHOK **14. OR.**



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ARITZ GORRITI

%0,34. Gutxi edo denak ez?

Irakaskuntza publikoan deituta zegoen greba egun batean, Hezkuntza Sailekoek alorreko azterketa bat aurkeztu zuten. Ekitaldian azpimarratu zuten, 14-16 urte arteko ikasleen %0,34k soilik uzten omen ditu ikasketak DBH amaitu baino lehen. Ehunetik pertsona batek ere ez; ehunetik pertsona baten herenak. Datu deigarria, baina are deigarriagoak dira azterketa horretako ondorioak. Haien esanetan, “behar” baino lehenago ikasketak uzten dituenaren perfila honakoa da; familia desegituratueta kide batekoa, arazo pertsonalak dituen edota ikasketetarako motibazio gutxi duena.

Tontxu Camposen esanetan, eskola 16 urte baino lehenago uztearen eragina larria izan daiteke pertsona baten garapenerako. Horren arabera, belaunaldi askoren garapenean eragin larria izan du 14 urterekin ikasketak amaitzekak... Eta alderantziz? Pertsona baten garapenerako ez al da larria 14-15 urterekin zer egin nahi duen eta zer ez argi izan eta aukeratzeko eskubiderik ez ematea?. Ez dut uste,

kasuan kasuko erabaki horrek garapen pertsonalari kalte handiegirik egingo dionik. Beti ere, ikasle bakoitzaren egoera eta errealitatea bakarra eta ezberdina dela kontuan hartuta.

Aipatutako tasa oso baxua da. Baina azterketa horretan ez dira aipatzen, akaso adin horietan ikasketak utzi eta lanean hasi nahi duen gaztea. Zer noski, askotan azterketa horretan tarterik ez badute ere egoera horretan dauden gazteak, egon badaude; eta ez dira kasu bakanak.

Ez dakit oso bidezkoa ote den ikasketak uzten dituztenei buruz, hain gutxi direla esan eta azaletik, hitz gutxitan, arazoaren ardura ikasle horiengan fokalizatzea. Eskumenen eskualdatzei buruz asko hitz egiten da eta 14 urteko ikasleei duela hamar urte eskumen hori kendu zitzaion. Berriro diodan bezala, ia ikasle bakoitzaren egoera ondo aztertuta, gutxienez, aipatutako eskumena erabiltzeko beharra duenari inoiz gaitasun hori itzultzen dioten. Bere garapen pertsonalak eskertuko du eta.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Unai Agirre

Ika-mika!

Nik sinatu dut II

NOAUA! 276. zenbakian kezkatu nengoela esaten nuen, eta susmoak egi bihurtu direla ikusi dut. Udal eta Foru hauteskundeetarako inoiz baino zerrenda gehiago utzi dituzte kanpoan eta gainera, harro azaltzen zaizkigu biztanleonek aurrera.

Harro daude: bere egoitza nagusia Madrilen duen PSOE alderdia, ilegalizazio gehiago eskatuz (baina harro ere) PP alderdia, IU-k nahikoa du ezker abertzaleari errua botatzea, PNV-k berriz nahiago du PP-rekin negoziarioa egitea, ezker abertzaleari errua botatzen entzun dugu EA, eta ilegalizazioak eskaintzen dizkion pozoitutako fruituak jasotzeko prest agertzen zaigu Aralar.

Orain lau urte bezala, ilegalizazioak

pozoitutako eserlekuak –berriz ere- bereganatzeko prest agertzen zaizkigu alderdi horiek. Azken lau urte hauetan egin duten sarraski bera egiteko prest daudela ikusten ditugu. Maiatzaren 28an Hego Euskal Herrian ilegalizatutako zerrendei dagozkie foru, alkatetza eta zinegotziak bereganatzen (lapurrak deitzea gehiegi dela diote) ikusiko ditugu, eta lotsa gutxiarekin –berriz ere- demokrazian oinarritutako hauteskundeak izan direla esaten entzungo diegu.

Nire aurreko idatzitxo hura honela amaitzen nuen “nik aukeratzeko dudak hautagaitzak duen eskubide guztiz demokratikoki eutsiko diot eta oztopoak-oztopo maiatzaren 27an berari emango diot nire botoa”.

Adierazten nuenari eutsiz, nire hautaketa EAE-ANV alderdia da, eta zenbait arrazoi ematera noa:

-Usurbilgo herrigintzarako zerrenda sendoa delako.

-Ilegalizazioan oinarritutako eserleku pozoiturik nahi ez dudalako.

-Euskal Herriari zor zaizkion eskubideen aldeko borrokan zerrendarik garbiena delako.

-Besteren eserlekuak okupatuko ez dituen zerrenda bakarra delako.

-Benetako Bake eta Demokraziarantz urrats bat eman nahi dudalako, nire botoa EAE-ANV.

Orkatx

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: ekainak 1. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 28.

Larunbat honetan, Santuenean, “Asto bat hipodromoan” ipuin antzeztua

Larunbatean hasiko da Plis, Plas, Txalo eta Jolas zikloa. NOAUA! Kultur Elkarteak haur zein gaztetxoentzat prestatu duen zikloa. Ekainaren 19ra bitarteko larunbat arratsaldetan, ipuin kontalari, pailazo eta haur jolasekin gozatzeko aukera paregabea izango dugu. Ondo pasa!

Bernardo Atxagaren izenburu bereko liburuan oinarritua dago ikuskizuna. Hipodromoan lan egitera doan asto baten bizitza kontatuko digu Iñaki Agirrezabal ipuin kontalariak. Zaldiak nola bizi diren ikusirik, astoak hipodromotik alde egiten laguntuko die bere astronomia ezagutzak baliatuz.

Martxoan hasi zen ikuskizun hau eskaintzen eta orduetik emanaldi piloa eskaini du Iñaki Agirrezabal ipuin kontalariak. Larunbat honetan, Santuenean



ASTOA IZANGO DA LARUNBATEKO
IKUSKIZUNEKO PROTAGONISTA.

izango da. Arratsaldeko 17:00etan, Santueneko elkarteak.

Plis, Plas, Txalo eta Jolas zikloak jarraipena izango du datorren astean, ekainaren 2an, Zubietan. Kilimiska animazio taldeak “Jolas txokoak” jarriko ditu martxan Zubietako frontoian.

**Plis, Plas, Txalo eta Jolas,
aurtengo egitarau osoa**

MAIATZAK 26, LARUNBATA

17:00etan, Santueneko elkarteak: Gorringo taldearen “Asto bat hipodromoan”.

EKAINAK 2, LARUNBATA

17:00etan, Zubietako frontoian: Kilimiska animazio taldearen “Jolas txokoak”.

EKAINAK 9, LARUNBATA

17:00etan, Kalezarreko plazan: Kiki eta Koko pailazoak (eguraldi txarra egingo balu, Kalezarko ekitaldia haur eskolan egingo litzateke).

EKAINAK 16, LARUNBATA

17:00etan, Aginagako frontoian: Dar dar taldearen “Egizu lo tartalo”.

EKAINAK 19, ASTEARTEA

17:30ean, Kaxkoa, herriko frontoian: Pirritx eta Porrotx.

Ika-mika !

Boto gosEA, Gezurrik ez OrmaetxEA!

Igande honetan izango dugu herritarrok Iñurre udal ordezkariak aukeratzeko aukera. Ez guztiek, ordea, PSOE, EAJren laguntzarekin, ia 400 hautes zerrenda baliogabetu dituztelako, hauteskunde lehiatik kanpo utziz. Garbi erakutsi dute berriz ere hauteskunde antidemokratikoak behar dituztela euren txantxuilo urbanistikoak egin ahal izateko.

Usurbilen ere antzekoa gertatzen da. Edo okerrago: batzuen boto goseak ez du mugarik, eta gezurrak esateko erreparorik ez dute, herritarrek nahasten badituzte ere. EAK 2003-2007 udal legegintzaldiaz egiten duen balantzea jasotzen duen aldizkaria jaso berri dugu. Adierazgarria Etxebizitzaren atalean jarri duten taula *bitxia*: “Ezker abertzaleko gobernuaren proposamenak (gorriz), eta EArenak (beltzez) alderatzen dira”. Gezuraren taula deituko genioke. Guztiak argitzea luze joko luke, baina batzuk behintzat argitu nahiko genituzke:

- Olarriondo. Olarriondon ezker abertzaleak etxebizitzarik ez duela aurreikusi dio. Gezurra. Ezker abertzaleak Olarriondon 406 etxebizitza egitea aurreikusi zuen: 240 babes

ofizialekoak, 20 sozialak eta 146 salmenta librekoak. EAK, ordea, proiektua aldatu eta 409 etxebizitza egitea hobetsi zuen: 146 libre, 120 babes ofizialekoak, 120 tasatuak, eta 23 sozialak. Beraz, hasierako asmoak nabarmen aldatu zituen EAK. Guk Udalean sartu bezain pronto etxebizitzak zozketatuko ditugu.

- Ugartondo. Ezker abertzaleak ez zuen bertan inolako egitasmorik aurreikusi, nahiz eta beraien aldizkarian 83 etxebizitza pribatu egiteko asmoa zegoela esan. Beste gezur bat.

Laburbilduz, beraz, ezker abertzaleak guztira babes ofizialeko 314 etxebizitza egitea aurreikusi zituen, hau da, EAK baino dexente gehiago. Hori, dena dela, ez da hain zehatza, beste proiektu urbanistikoetan ere egin zitezkeelako babes ofizialeko etxebizitza gehiago. Herriak hala erabaki bazuen ere, ezker abertzaleak ezin izan zuen orain dela lau urte udal gestioa hartu, eta ezin izan zituen proiektu gehiago gauzatu. EAK bai, eta arau subsidiarioetan aurreikusitako eremu guztietan salmenta libreko etxebizitzak bultzatu ditu; eremu horietan etxebizitza babestuak sustatzeko planteamendurik ez du egin. Okerragoa

dena: Lurzoruaren Legeari muzin egiteko, astebeteko epean 233 etxebizitza pribatu egitea onartu zuten, Lurzoruaren Legeak sustapen berrietan etxebizitza babestuak egitera behartzen baitu.

Gezurrik ez, beraz.

Aldizkarian, gainera, agertzen diren proiektuak EAK sustatutakoak izango balira bezala erakusten zaizkigu. Proiektu asko baina, aurreko legegintzaldian abiatutakoak dira, esaterako: Haur eskola, Eguneako zentroa, konponketak Haraneko futbol zelaian, Sutegi kultur etxea, lokal komertzialak etxe bihurtzeko aukera, Kale Nagusia, San Inazio, Eguzkitzako... urbanizazio berriak. Aldizkariko beste proiektu erdiak, gainera, oraindik asmoak baino ez dira. EAren proiekturik apenas ikusi dugu.

Gure helburua eskutitz honekin ez da herritarrek gehiago nahastea, gauzak argitzea baizik, eta EAren gezurrak herriari jakinaraztea. Dena dela, maiatzaren 27an bakoitza bere tokian jarriko duela gure gauda.

Usurbilgo ezker abertzalea

TXOKOALDE

IÑAKI LABAKA

Datorrenarentzat nahiko lan



Hauteskundeak gainean ditugun honetan, gehienak zerua eta lurra eskainiaz ibiltzen dira baina nik eskaini aurretik gogorarazi nahi nieke gure auzoan badirela zenbait gauza hobetzeko eta egiteko.

Beti izan dugu auzora sartzeko oso sarrera txarra. Usurbildik datorrenak gasolindegia erabili behar du errotonda moduan. Baina sarrera txarra bada irteera da okerrrena. Aldapa, bisibilitate txarra eta lekua ere ez da soberan izaten. Hona hemen lehengo lana.

Goitik behera gatzotela ere zubiarekin egin behar topa. Honen egoera ere ez dut uste nahi bezain osasuntsua denik. Asfaltoa egoera txarrean dago. Ondoren paso nibela dauka-gu eta gezurra badirudi ere oraindik barrerak gora eta behera ibiltzen dira. Aspaldi entzun izan dugu trenbidearen inguruko proiekturik baina honek berdin dirau.

Barrurago sartzen bagara ere auzoko elkartearekin topa-tuko gara. Honek ere, nahiz eta auzokoentzat (eta bertakoa ez direnentzat ere) balio handia izan eta bizpahiru urte igaro zer egin erabakitzen hasi ginela, udalak ez du aurrerabiderik eman. Beraz hau ere etxekolan bezala geratzen da. Eta honekin batera gazteentzat etxebizitza batzuk egitea ere ez litzateke gaizki egongo. Nahi duenak badu zereginik.

KALEZAR

AINARA URIBE

Ugarte

Pena ematen dit Ugarte baserriak. Abandonatu itxura dauka, ingurua zeharo utzita dago, zatartuta dauka aurrekaldea eta barrutik hutsik, ixilik, bakarrik. Bera hain handia izan arren, ahul somatzen dut, ez baitaki zein izango den bere etorkizuna. Baina pozik egoteko arrazoia badaukat, baita Ugarteren alde borrakatu duen A. M.ak ere, zutik baitago oraindik. Horrela segi dezala gutxienez, bestela ba, Artzabalek izan duen tratu fisiko berdina jaso dezala.



KALEBERRI

IRATI PORTU

Espaloia joka



Igandean Sagardo Eguna izan genuen Usurbilen, egun seinalatua usurbildar guztientzat. Nahikoa beldur izan zen eguraldiagatik, azkeneko urte hauetan beti salbatzen zen arren aurten kopeta beltza baitzuen zeruak. Goizeko zeru urdinak piztutako esperantza apurra zapuztuta euria egin zigun, eta adibidez, haurren guneko egitaraua ezin izan zen aurrera eraman. Baina tanta pare bat ez zen nahikoa izan herritarren gogoa itzaltzeko. Egun ederra pasa genuen! Zorionak antolatzaileei!!

Hala ere, esan beharra daukat ez zitzaidala normala iruditu taberna batzuk hain goiz ixtea, horrelako egun polita eta gero pena bat izan zen, jende askori parranda bertan moztu zitzaigun. Urtean behin izango horrelako eguna eta...

Eta azkenik keja txiki bat. Jeje, komentarioak izan dira udaletxetik behera Zumarte aldamenean dagoen espaloia horren inguruan, kotxe mini moderno bat izan ezean pixka bat zaila baita espaloia ukitu gabe kurba ondo ematea. Aiiiiii ene, zorionak arkitektoari ere.

ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Sagardo Eguna

Berriro ere igaro da Sagardo Eguna! Nahiz eta aurreko urteko eguraldiarekin konparatuz, aurtengoan eguraldi exkaxa egin arren jende ugari hurbildu zen aurrekoan Usurbilera. Sagardo postuak ireki eta sagardo dastaketari hasiera eman zitzaion. Hamaiketako egiteko ere aukera ugari zegoen, taloak, otartekoak, pintxoak... Giro ederra egon zen herriko txoko guztietan, tabernetan gehiengo, dantza eta giro ederrean eurtik babestu nahian zebilen jendearekin.



Txaranga eta musika soinuak ere alaitu zituen gure herriko kaleak, haur, gazte eta helduak festa-giroan herritik barrena ibili ziren hauekin batera dantzari eguraldi traketxa kontuan hartu gabe.

Beraz, giro ederra izan genuela aurreko igandean gure herri honetan.



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Kontuz abiadurarekin



Gaur maiatzak 21 astelehena eta halakoxe eguna daukat, badakizue, atzo sagardo eguna... hala ere neurria ondo hartua daukat egun horri. Sekreturik ez dago, lehenbizi ondo jan, gero sagardoa dastatzeko. Horregatik gaur lantegian nengoela, auzoko kronikari bueltak eta bueltak ematen hasi naiz eta erabaki dut zerri buruz idatzi.

Beti izan dut kezka handi bat gure auzoarekiko; autoen abiadura. Nork ez du sekula pentsatu egunen batean ezbeharren bat gertatuko dela? Ez da posible, gaur egunean, zubia- ren bi aldeetara dauden abiadura murrizteko "oztopo"en antzekorik ez egotea auzoan zehar eta batez ere umeen jolas- lekuaren ondoan. Zenbat gazte eta ez hain gaztek zubia pasa orduko eskubitara hartzen dute abiadura haundian? Musika autoan tope jarrita haurren bat errepidera sartzen bada bere pelotaren atzetik, jendearen ohiuak ere ez lituzke entzungo. Baina abiadura motelduko balu... zebra bideak jarri...

Beno agian oso dramatikoa jarri naiz baina, uste dut erre- alitatea hori dela. Udaberria ere aurrera doa eta laister gara kurtso bukaerarekin eta festen hasierarekin eta agian herrian ere izango ditugu aldaketa batzuk igandetik aurrera. Hori espero dugu batzuk behintzat.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Jendearen joan-etorriak



Pasa zaigu konturatzerako hainbeste gustatzen zaigun Sagardo Eguna. Eguraldia ez dugu lagun izan aurtengoan baina guztiz txarra ere ez da izan. Hurrengo hitzordua San Juanekin izango dugu eta konturatzerako murgilduak izango gara herriko festetan.

Udaberrian sartzen garen bezala, asko nabaritzen da bizi gehiago gure auzoan. Parkean, nahiz eta oso egoera onean ez egon, jendea ibiltzen da lagunartean edo fami- lian, une on bat pasatzeko asmoz. Mendi buelta egitera eta pasiatzera joaten direnak ere gehiago izaten dira urte sasoi honetan.

Elizan ere jende gehiago ibiltzen da. Ez noski bapate- ko fededun bilakatzen direlako. Jendeak nonbait gusto- so izaten du maiatza ezkontzeko eta antzematen da hori asteburuan. Dirudienez, ezkontzeko toki polita dela iruditzen zaio bati baino gehiagori.

Jendearen joan etorriez ari garela ezin ahaztu lorategia ere. Hemen ere izaten da jendea: balkoiak apaindu nahi dituztenak, landareren bat edo beste zerbait landatu nahi dutenak,...Urte sasoi honek, ez dago dudarik, bizia ematen dio gure auzoari.

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Kontxa, 50. urteurrena

Kaixo guztiei! Hemen nauzue berriro Kere Aginaga aldeko berri emanaz. Oraingoan histori piska batekin natorkizue.

Aurten irailan, Aginagako arraun elkaratek lehenengo aldiz Donostiako Kontxako saria irabazi zuela 50 urte betetzen dira.

Hau dela medio, Aginagako jai Batzordeak eta Aginagako Kirol Elkarateak, omenalditxo bat gauzatu nahi du. Omenaldi hau burutzeko, zenbait informazio lortzea ezinbestekoa da guretzat. Hau dela eta, norbaitek informa- zioa, argazkiak edo antzeko zer- bait eskuragarri izanez gero,



eskertuko genuke telefono hauetako batetara deitu eta informazio hori pasatzea. Telefono zenbakiak honako hauek dira: 677 882321 (Oskar) eta 686 820329 (Ane).

Besterik gabe, zuen laguntza- ren zain geratzen gara. Ea denon artean zerbait polita egi- ten dugun egun honetan.



ZUBIETA

PELLO ARANBURU

On-gaitzak

Madrilera egin genuen salto asteburuan familia ospakizun baterako. Jende ugari kalean. Dendak borborka. Denda bete kaleak begien gozagarri, ostiral arratsaldean. Ederra da hiria Zubietatik joandakoarentzat.

Dena ez da on, hala ere; kezka izan nuen autoa aparkatzea. Eta bertan egindako denbora laburrean tarteka aritu behar izan nuen autoarentzako leku egokia bilatzen. Hiriak baditu bere on-gaitzak.

Handik etorritakoan, Zubietan, gogoia beste nonbait. Laster Eskola Txikien festa izango dugu. Eskolako gurasoek jo eta su ari dira eguna prestatzen. Eta laguntza eskatuko digute herri- tarroi egun horretan. Hori prestatzeko bilera izango da dato- rren larunbatean, hilak 26, arratsaldeko seietan, frontoi ondo- ko txokoan. Bada gauza ona herri txikiak bat egitea horrelako zerbaitetan.

Dena den, ez da guztia on, herri txiki honetan ere: Usurbildik Zubietako plazarainoko errepidea kros eremua izendatuko dute laster, aurretik inor hiltzen ez bada istripuz, zati horretan zuloak horrenbestearainokoak izanik... Bota, bota galipota, arraioa!

On-gaitzen kontularitza hau ez da oso praktikoa hiria eta herria alderatzeko. Edo Madrila eta Euskal Herria. Batez ere, dagoeneko bizitzan aukeratu behar izan badugu non bizi eta zeinen alde egin.



Aspaldiko Sagardo Egunik euritsuena

Eguraldiaren ondorioz, beste urte batzuetan baino jende gutxiago ibili zen Sagardo Egunean. Hala ere, giroa ederra izan zen egun osoan.

Irekiera ekitaldia hunkigarria izan zen. Lehen lehenik, JoxAnton Artzeren olerki bat errexitatu zuen Arantzazu Aranburuk, txalaparta doinuaz lagunduta. Segidan, Saizar sagardotegiko Esteban Lertxundi omendu zuten antolatzaileek. Sagardo Egunari laguntza handia eskaini izan diote beti Saizarkoek. Iazko uztailean zendu zen Esteban Lertxundi.

Irekiera egin eta gero hasi zen sagardo festa. Aurten, bertako sagardoarekin batera Galiza, Kantabria eta Errusiako sagardoa dastatzeko aukera izan da.

Sagardo Eguneko irudi gehiago noaua.com webguneko argazkitegian topa-tuko dituzue.



SAGARDO EGUNEKO ANTOLATZAILEEK ESTEBAN LERTXUNDI OMENDU ZUTEN.
BERE ALABAK JASO ZUEN ERRAMUA ETA SAGARDO EGUNEKO ZAPIA.



BOTATZAILEAK DAUDEN TOKIAN
BETI IZANGO DA SAGARDOA
EDATEKO PREST DAGOENIK.
EURIA GOGOTIK EGIN ARREN...



IÑAKI AGIRRESAROBK IRABAZI
ZUEN LEHIAKETA. OXKAR
SANTAMARIA BIGARREN IZAN ZEN
ETA IKER MUGURUZA HIRUGARREN.



SAGARDO EGARRIZ ZEGOEN
JENDEA. NAHIZ ETA AURTEN LAGUN
GUTXIAGO IBILI, BOTATZAILEAK
ETENIK GABE ARITU ZIREN LANEAN.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8. behea · 943 363 348 · 609 888 021

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia


LABE-GOXO

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

I n t e r n u n - z r n u n l k



Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

Illepaindegia eta Solarium-a

Ioli Lizarralde

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.

Zubiaurrenea, 5B © 943 361 971

JoxAnton Artzeren

“Isturitzetik Tolosan barru” berrargitaratu dute

JoxAnton Artzeren lehen poema lana, “Isturitzetik Tolosan barru”, berrargitaratu dute, ia 40 urteren buruan. Koldo Mitxelena aurkeztu zuten pasa den maiatzaren 16an.

Aspaldi agortu zelako eta lan hura belaunaldi berriei helarazteko asmoz berrargitaratu dute Pamielak eta Arteolak Artzeren lehen lana.

Irakurri bakarrik ez, ikustekoak dira poemak. Edukia, eduki horri emandako forma eta alde estetikoari erreparatuta, ondo zaindutako lana da. Espazioarekin asko jolasten du Artzek bere poemetan.

1.000 aleko tirada

“Isturitzetik Tolosan barru”, lehen aldiz, 1969an argitaratu zen. 3.000 ale banatu ziren eta hedapen zabala izan zuen. Liburuarekin batera, biniloizko disko bat ere banatu zen. Orain, CD bat prestatu dute, baina berrikuntze-kin; duela 40 urteko lanei Artzek errezitatutako lau poema berri erantsi dizkie. Argitaratu dituzten 1.000 aletik ehun zenbatuta daude eta Artzek berak sinatu ditu.



DONOSTIAKO KOLDO MITXELENA KULTURUNEAN AURKEZTU ZUTEN
“ISTURITZETIK TOLOSAN BARRU” LIBURUA.

Asko entzundako lanak jasotzen dira

Liburuan hainbat musikarik hain lezagun egin dituzten poema bat baino gehiago biltzen da. Adibidez, Mikel Laboak kantatu izan dituen “Txoria txori” eta “Nire ama hil zait”

abestietako edukia Artzerena da. Baita, Urkoren ahotsak ezagun egin zuen “Usurbilgo Elizaren hormak” lana ere. Euskal poemagintzan abangoardistatzat jo izan diren lanak.

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal): 943 36 09 80

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K / Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

MIKEL
IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3- 943 361 106
Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

Ekitaldiak ugaritu egin dira hauteskunde kanpainaren azken txanpan



KALEZAR, AGINAGA, SANTUENEA, TXOKOALDE, KAKKOA ETA ZUBIETA BISITATU DITUZTE EAE-ANVKO KIDEEK. TOKI HORIETAN GUZTietan HERRI PROGRAMAREN ETA ZERRENDAREN AURKEZPENA EGIN ZUTEN. IRUDIAN, XABIER MIKEL ERREKONDO ETA NEREA ERAUNTZETAMURGIL.



IÑAKI ILLARRAMENDI USURBILGO EAJ-PNVKO HAUTAGAIK LASARTE-DRIAKO SASOETA IKASTETXEAN EGIN ZEN EKITALDIAN HARTU ZUEN PARTE. BURUNTZALDEKO BESTE HAUTAGAIKIN BATERA, MARKEL OLANOK ETA MARIBEL VAQUEROK ERE HARTU ZUTEN PARTE EKITALDIAN.



ARALARREK UDARREGI IKASTOLAN EGIN ZUEN BERE ZERRENDAREN AURKEZPENA. EUSTAKIO ARROJERIA, LONTXO ZUBIRIA ETA JOSE RAMON FURUNDARENAK AZALDU ZITUZTEN LEGEALDI BERRIRAKO ARALARREK DITUEN EGITASMOAK. LUNCH BATEKIN AMAITU ZEN EKITALDIA.



OSTEGUN HONETAN, EAK EKITALDI NAZIONALA EGINGO DU SUTEGIN, ILUNTZEKO 20:00ETAN. BERTAN IZANGO DIRA LUISMARI ORMAETXEA ALKATEA ETA EAKO HAUTAGAIK; IÑAKI GALDOS, BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTAGAI NAGUSIA ETA BEGOÑA ERRASTI, EUSKO ALKARTASUNAKO LEHENDAKARIA.



txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

teilatuak eta fatxadak

JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

Orain arte botoa udaletxean eman dutenek, Udarregi ikastolan botatu beharko dute aurten

Igande honetan, botoa ematera joateko garaian, izango da nobedaderik. Nagusia, titularrean aipatu duguna. Beraz, orain arte udaletxera joaten zirenak, aurten, Udarregi ikastolara joan beharko dute botoa ematera. Sekzio berri bat ere osatu da. Beraz, beste hautes-mahai bat gehiago izango da hauteskunde hauetan.

Igandekoa hauteskunde eguna izango da. Udal hauteskundeak eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak bozkatu behar dira. Eta Zubietan, baita Herri Batzarra ere.

Sekzio berri bat

Aurten, legeak aginduta, sekzio berri bat izango da, laugarrena. Hori da udal hauteskunde hauetako beste nobedadea. Sekzio horretan bildu dira Alperroburu kalea, San Inazio kalea, Ariztitxo kalea, Beko kale, Erdiko kale eta Goiko kaleko biztanleak. Hauek ere, Udarregi ikastolara joan beharko dute botoa ematera.



UDALETXEAN EZ DA BOTOA EMATEKO MAHAIRIK IZANGO.

Kalezarrekoak, Haur Eskolan
Kalezarrekoak, beti bezala, Haur Eskolara joan beharko dute.

Eta Zubietan, Usurbil aldeko zubietarrek Lanbide Eskolara joan beharko dute botoa ematera. Donostia aldeko zubietarrek, aldiz, Eskola Txikira.

Herri Batzarrerako botoa

Zubietako Herri Batzarra ere aukeratu behar da. Botoa emateko, Donostia zein Usurbil aldeko zubietarrek Almandegira hurbildu beharko dute.

Hauteskunde mahaien eta egoitzen zerrenda

LEHEN SEKZIOA: 1 Distritoa

Mahaiak: A – A-K
CERA: A-Z*
B – L-Z

NON: Udarregi ikastolan

* Atzerriko botoa zenbatzeko mahaiak

2. SEKZIOA: 1 Distritoa

Mahaiak: A – A-K
B – L-Z

NON: Udarregi ikastolan

3. SEKZIOA: 1 Distritoa

Mahaiak: A – A-K
B – L-Z

NON: Kalezarren, Haur Eskolan

Mahaia: C

NON: Zubietan, Lanbide Eskolan

4. SEKZIOA: 1 Distritoa

(Alperroburu kalea, San Inazio kalea, Ariztitxo kalea, Beko kale, Erdiko kale, Goiko kale)

Mahaia: U – A-Z

NON: Udarregi ikastolan

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

PSU

943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USBIL

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USBIL

J.ORBEGOZO

ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.ESK. 948372937 • 659602789

Amaia Zubiriak “Haatik” diskoa aurkeztuko du ostiral honetan SuteGIN

Pascal Gaigne, Javi Area eta Aitor Furundarenarekin batera, Amaia Zubiriak “Haatik” bere lanik berriena aurkeztuko du ostiral honetan SuteGIN, gaueko 22:30ean. Sarrerak aldezturik 8 eurotan salgai daude kiroldegian. Egunean bertan, emanaldia hasi aurretik, takilan, 10 eurotan.

NOAUA! “Haatik” zure azken lana. Zergatik?

Amaia Zubiria. Haatik. Lotsagabekeria hori erreibindikatu. Gogo ematen didalako. Gaurko poetak izugarri onak dira, izugarri maite ditut, baina bakoitzak bere ideiak bere hitzekin esatea ez da hain txarra. Autentikotasun pixka batekin esanak daude. Bihotz bihotzetik aterak daude kantuak. Nire pasadizoak kontatzen dituzte. Ni ez naiz poeta izugarria, baina onartzen naiz. Azken disko hau orain arteko lanen segida bat da. Hamalau disko ditut. Jada lau diskotan nire lana erreibindikatzen hasia nengoen aspaldi. Eskaini didaten konfiantza maila ez dut alferrik galdu.

AMAIA ZUBIRIA

“Musikariok oso akatsdunak gara, baina inperfekzio horretan jendea askoz autentikoagoa da”

N. Pasadizoak aipatu dituzu. Iraganari begirakoak?

A. Z. Ez. Nahiko kantu berriak dira. Pasadizo asko egunerokoak dira. Oso terapia ona da. Orain pasadizo horietaz hitz egitea plazerteroa iruditzen zait. Mila puska ezberdin gara.

N. Diskoaren aurkezpena egingo



AMAIA ZUBIRIAREN SAIDA ETA, OROHAR, SOINURBIL ZIKLOA ZUMARTE MUSIKA ESKOLAK ETA USURBILGO UDALAK ANTOLATU DUTE.

duzu SuteGIN?

A. Z. Emanaldia kantu tradizionalekin osatuko dugu. Badakit memoria kolektibo batek kantu tradizional horiek gustura hartzen dituela. Baina bestetik, kantu berriak aldarrikatzen ditut, horiek ere egunen batean gure memoria kolektiboaren zati izan daitezke eta. Une honetan, kantari argentinarrak indartsu eta gogor bat entzuten ari naiz. Hori euskaraz noiz? galdetzen dut. Gauzak esateko gai izan beharko genuke, gero egin ahal izateko. Esateak egiten du errealitate egitea gauza hori. Horri hitzak eta melodiak jartzea gustuko dut.

N. Emanaldi batean, zer aurkitzen duzu aurrean dituzun ikus-entzuleen artean?

A. Z. Agian, harridura. Probokatzeko gustuko dut; harridura, negarra, barrea, baina gehienbat harridura. Honek honekin zer esan nahi izan duen galdetzea eta horrekin batera, jakin nahia eta horrekin guztiarekin

maitasuna jasotzea nahi izaten da noski. Maitasun eta behar afektibo handia dugu kantariok.

N. Kide ezberdinekin abestu izan duzu?

A. Z. Musikari askorekin egon naiz. Baina oso fidela naiz aldi berean; Txomin Artolarekin lau disko egin ditut. Pascal Gaignerekin 25 urte daramatzat. Musikari berrien artean, gutxien dabilenak ere hamar urte daramatza. Asko maite ditut. Ezagutzen zaituen norbaitekin joatea oso lasaigarria da. Ni oso inprebisiblea naiz emanaldietan. Talde kideek ere gauza bera egiteko askatasun osoa dute eta hori da guk dugun bizigarria. Haiek bezain onak egongo dira, haiek baino hobeak, ordea, ez dakit ba ote diren.

N. 30 urte hauetatik zerrekin gertatu zara?

A. Z. Guztiarekin. Zenbat jende ezagutu dudana. Musikariok oso akats-

“Kalakan, oso zehatzak dira hizlariak aukeratzerakoan”

dunak gara, baina inperfekzio horretan jendea askoz autentikoagoa izaten da. Bustitzen den eta mugitzen den jendea da. Askotan ezer ez izan eta asko ematen duen jendea da. Zer prekarietatean bizi den, ezin kobratu. Askotan entzun izan dugu guk dugun lanagatik ez genukeela kobratu behar. Askotan ez da gure lana aintzakotzat hartzen.

Askotan esan izan digute guk herriaren alde egin behar genuela eta hori ezin genuela kobratu. Borroka asko izan ditugu. Baina musikaria eta lotura baino kontraesan handiagorik ez dago. Oso egokia da kantari batek kausa baten alde egitea. Kausak bai, baina ez inoren izenean; zure izenean bai. Kausa batean sinistuz gero, borrokatu baina ez inori esan zer egin behar duen. Askatasuna oso zaila da, hari oso fina da eta edozein unetan eten liteke.

N. Aspaldi honetan ere kalakaria zaitugu. Non kokatzen duzu zure burua eztabaida saioetan?

A. Z. Naizen bezalakoa. Gai ezberdinen aurrean nola defendatzen garen, zer erretratu atera duzuen ikus-entzu-leok dakizue. Gustuko dut, bizirik



AMAIA ZUBIRIAK DAGOENAKO
14 DISKO KALERATU DITU.

egoten eta gauzak berraztertzen laguntzen dit, gauzak aldatzen baitoaz. Oso programa serioa da. Hor etortzen diren adituak oso serio hitz egiten dute. Oso gustura eta asko hitz egiten da. Kalakan, oso zehatzak dira jendea aukeratzerakoan, oso serioak. Gutxitan erratu dira.

ARITZ GORRITI

“Ez naiz batere nostalgikoa”

NOAUA! Nola gogoratzen duzu Zubieta?

Amaia Zubiria. Andatzari begira. Ez dakit zergatik, baina Andatzak amets gaizto asko eragin dizkit. Ikusten nuen arratsaldeko eguzkia han atzean gordetzen zela eta beldur hori; ziur asko nire haurtzaroko ezbarrekin oso lotuta egongo da. Baina era berean, izugarrizko erakargarritasuna. Nonbait errotu behar dugu eta niretzat Zubieta izango da beti sorlekua.

N. Zertan aldatu da?

A. Z. Zerikusi gehiago du guk amesten genuen Zubietarekin. Herritik norberak joatea erabakitak, gomendagarria da baina derri gorrez alde egin beharra izatea oso gogorra da. Egun, gehienek badute gelditzeko egokiera hori. Oso toki ederra iruditzen zait.

N. Bertara itzuliko zinateke?

A. Z. Ez. Ez naiz batere nostalgikoa. Bizitza hura amaitu zen, geroztik beste bizitza batzuk bizi izan ditut.

Soinurbil, azken txanpan

Soinurbilen hirugarren edizioa bere azken astean sartzean da. Ekainaren 2ra arte oraindik badago, ordea, zer ikusia eta zer entzuna, noski. Erreterriako Musika Banda, Zizurreko Musika Eskolako ikasleak eta Lauhaizeta akordeoi orkestra.

Jai egun goizez musika banden hotsak berreskuratzen nahian, Erreterriako Musika Banda gonbidatu dute Zumarteko arduradunek. Igandean, maiatzak 27, lehenbizi kalez kale ibiliko dira 11:30etik aurrera; ordubate geroago,

kontzertua eskainiko dute frontoian.

Datorren ostiralean, ekainak 1, Zizurreko Musika Eskolakoak izango dira Sutegein. 1985ean zabaldua, amaitze-ar den ikasturte honetarako 410 ikasle matrikulatu dira.

Azkenik, hurrengo egunean eta ordu berean, larunbatez Lauhaizeta akordeoi orkestrako kideen bisita izango da Sutegein. Proiektuak Gipuzkoako lau herri lotzen ditu; Hernani, Irun, Lezo eta Mutrikuko Musika Eskoletako akordeoi ikasleek osatua dago. 2005ean Lezon arrakasta handiz debutatu ondoren eta



BTK TALDEKOAK, LARUNBAT
ARRATSALDEKO SAIOAN.

ordutik eskaini duten emanaldi biraren ostean, CD bat ere argitaratu berri dute.

Autoritatea eta diziplinari buruzko hitzaldia antolatu du Hitz Ahok

Gurasoen bizipenak eta kez-
kak guraso direnekin par-
tekatu, profesionalen ahol-
kuak jaso, hitz egiteko eta hausnarke-
tarako gune bat sortu... Horretarako
osatu zen Udarregi ikastolaren baitan
Hitz Aho Guraso Elkarteak. Ordutik,
ekitaldi interesgarriak antolatu dituz-
te. Datorren asteazkenean, autorita-
tea eta diziplinari buruz arituko dira,
Joxe Amiama psikopedagogoarekin
batera.

Gurasoek askotan entzun dute
euren seme-alaben heziketan autorita-
tea erabili behar dutela, baina autori-
tario izan gabe. Diziplina behar dela,
baina gogorregi izan gabe. Zorrotzak
izan behar direla gurasoak baina aldi
berean malgutasunez jokatzeko jakin.

Sarritan izaten diren kezka horietaz
aritzeko hitzaldia antolatu du Hitz
Ahok hurrengo asteazkenearako, mai-
atzak 30, arratsaldeko 17:00etan ikas-
tolan, Agerialdeko eraikinean. Joxe
Amiama psikopedagogoaren eskutik,
autoritateaz eta diziplinaz aritzeko
aukera ederra izango dute gurasoek.



HITZALDIA MAIATZAREN 30EAN
ASTEAZKENEZ EGINGO DA
AGERIALDEN.

Maiatzak 30, asteazkena

HITZALDIA: Autoritatea eta dizi-
plina. Zer da autoritatea? Nolako
eragina du gure seme-alaben hezike-
tan? Diziplinaren onurak, gurasoen
lan gogor horri eusteko estrategia
batzuk...

HIZLARIA: Joxe Amiama, psikope-
dagogo.

NON: Ikastolan (Agerialde).

NOIZ: Maiatzak 30, asteazkena.

ORDUA: 17:00-18:30.

ANTOLATZAILEA: Hitz Aho Guraso
Elkartea.

Eskola Txikien Festa antolatzeko jendea behar da

Eskola Txikien Festa, aurtan,
Zubietan egingo da. Euskal
Herriko eskola txikien bilgunea
izango da egun batez Zubietan.
Festa giroan burutuko den egun
horretarako, ordea, laguntzaile
premier dira antolatzaileak.

Pentsa, lau mila lagun espero
dira ekainaren 10ean Zubietan
egingo den ospakizunean.
Tabernetan lanean aritzeko, trafi-
koa antolatzeko, autoak parking-
etara bideratzeko... izango da
zereginik egun horretan. Baina
eskola bezalaxe, Zubietan ere txikia
da. Eta eguna behar bezala anto-
latzeko, usurbildarren laguntza
eskatu dute antolatzaileek.

Laguntza animatzen direnen-
tzat, hain zuzen, bilera bat antola-
tu dute Zubietako Eskola Txikiko
gurasoek. Bilera hori Zubietako
lokal berrian izango da, frontoia-
ren ondoan. Larunbat honetan,
maiatzak 26, arratsaldeko
18:00etatik aurrera.

Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan
BANDERA SALMENTA
PINTORE KALEA 7 · LASARTE-DRIA
943 376 424 · 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

**Zuen
publizitatea
hemen**
943 360 321
publizitatea@noaia.com

**ALKORTA
AUTOZERBITZUA**
Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak
Behoko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

Ford
Usurbil
Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala
Zumartegi Poligonoa,
Aitezarra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92
943 36 10 79

Larunbatean denok Oiardo kiroldegira

Usurbil Kirol Elkarteko senior mailako eskubaloï taldeak Euskadiko txapelketa jokatu nahi du datorren denboraldian. Igoera fasea amaitzeko bi partida besterik ez dira falta eta azken bi jardunaldietan lortutako garaipenen ondoren, berriz ere igoera ematen duten bi postuak eskuratzeko borrokan sartu dira. Larunbat honetan Oiardo kiroldegian jokatuko dute Bergararen aurka eta eskubaloï taldeko kideak herritarrek bertara azaltzeko deialdia egin dute, taldea animatu eta beraien helburua lortzeko aurrerapauso handi bat eman ahal izateko.



LARUNBATEAN HIL ALA BIZIKO PARTIDA JOKATUKO DUTE OIARDO KIROLDEGIAN.

Duela aste batzuk igoera lortzea ezinezkoa izango zela zirudien. Hiru partidak jarraian galdu ondoren senior mailako eskubaloï taldea sailkapenaren atze aldera pasa zen. Hala ere garaiz erreazionatu dute. Azken bi partidak irabazi dituzte eta ligaxka amaitzeko bi jardunaldi falta direnean igoera lortzeko aukerekin dira oraindik. Lehen bi postuak eskuratzen dituzten taldeak lortuko dute hori.

Momentu honetan 4. postuan kokatuta daude Arabako Alipendi taldearekin berdinduta 8 punturekin. Gusla Urduliz dago lidergoan 11 punturekin, baina talde honek ezin du igo, datorren denboraldian Euskadiko txapelketan izango baita beraien talde nagusia aur-

ten maila galdu ondoren. Ondoren Bergara dago 10 punturekin eta Urdanetak, berriz, 9 puntu ditu.

Honela bada lau talderen arteko borroka ikusgarria izango da liga amaiera honetan eta Antonio Castro eta Jose Lorenzo "Manzano"k zuzendutako taldeak larunbatean jokatuko du lehen "finala". Bergara izango dute aurrez aurre Oiardo kiroldegian eta usurbildarrek garaipena behar beharrezkoa dute. Lehenengo itzulian 34-27 galdu zuen herriko taldeak Bergararen aurka eta garaipena lortzeaz gain, 7 gol baino gehiagoko abantaila lortzea ere garrantzitsua litzateke. Horrela balitz, bergararen aurretik jarriko lirateke sailkapenean jardunaldi baten faltan nahiz eta

puntu kopuru bera izan.

Partida honen garrantzia ikusita, larunbat arratsaldean senior mailako taldea animatzera joateko deia egin nahi die herritarrei Usurbil Kirol Elkarteko kideek. Oiardo kiroldegiko eskubaloï pistako harmailak leporaino betetzea nahi dute, jendeak partida osoan zehar herriko taldea animatzen egoteko. "Neurketa hau irabazten badugu igoera lortzeko aukerekin iritsiko gara azkeneko jardunaldira eta horretarako zaletuen laguntza behar dugu", diote eskubaloï taldeko kideek. Beraz, larunbat arratsaldean herriko eskubaloï talde hau animatzera gonbidatuta zaudete.

JOSU ARANBERRI

Herri Arteko pilota txapelketatik kanpo

Usurbil Gipuzkoako Herri Arteko pilota txapelketatik kanpo gelditu da final zortzirenetan. Joaneko partidetan 2-1 irabazi eta 14 tantoko aldea lortu bazuten ere, Ataunen huts egin zuten herriko pilotariak. 2-1 galdu zuten eta tanto bakar batengatik final laurdenetatik kanpo gelditu dira.

Kadete mailan 22 eta 21 irabazi zuten Xabier Santxo eta Jokin Irastorzak. Usurbilen 22-12 irabazi bazuten ere bazekiten Ataunen partida gogorra izango zutela, eta halaxe izan zen. Azkenean, tanto bakar bategatik bada ere, garaipena lortu zuten, puntu

garrantzitsua lortuaz.

Jubenil mailan, aldiz, 22 eta 10 galdu zuten Eñaut Esnaola eta Jon Esnalek. Herriko pilotalekuan baino 4 tanto gehiago egiteko gai izan ziren herriko pilotari gazteak.

Honenbestez nagusien mailako neurketa zen erabakigarria. Usurbildarrek 19 tanto egitea nahikoa zuten txapelketan aurrera egiteko, baina ezin izan zuten lortu. Jabier Santxok eta Enrike Huizik 22-2 irabazi zuten joaneko partidetan eta bazirudien ez zutela arazorik izango partida aurrera ateratzeko, baina ez zen hala izan. 22-18 galdu zuten eta Usurbil txapelketatik kanpo gelditu da.

Amador Granadok lau domina eskuratu ditu Sevillan

Lehengo asteburuan jokatu zen lminusbaliatuen Espainiako txirrindularitza txapelketa Sevillan. Kilometroko distantzian urrezko domina eskuratu zuen Amador Granadok. Baina ez zen irabazi zuen domina bakarra izan. Brontzezko beste hiru domina etxeratu zituen usurbildar txirrindulariak.

Jazarpen lasterketan, erlojuaren aurkako proban eta iraupen lasterketan eskuratu zituen zilarrezko beste hiru domina horiek.

Eguneko goardiako farmaziak

Maiatzak 24, osteguna
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 25, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 26, larunbata
Gil, Nagusia 24 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Maiatzak 27, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 28, astelehena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 29, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 30, asteazkena
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Maiatzak 31, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 1, ostirala
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Ekainak 2, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Ekainak 3, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

J. Etxebeste Farmazia

Elkano 2 kalea, Hernani. 943 552087

(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

**Zubieta-Donostia
TST autobusak**

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da

*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

**Ekainaren 6an, olioia
eta beste hainbat hondakin
biziklatzeko aukera**

Olio erabilia eta beste hainbat hondakin biltzen dituen San Markos Mankomunitateko ibilgailua hilaren lehen asteazkenean hurbiltzen da Usurbila. Ekainaren 6an, goizez, frontoiaren atzean izango da ibilgailua. Zerbitzu honen bitartez, etxeko hondakin arrisksuak, olio erabiliak eta ehunak jasotzen dira.



ORDUTEGIA Tren							
Donostia AMARA	Donostia LUGARITZ	Donostia ANORGA	Donostia ERREKALDE	USURBIL	Orio AIA	Zarautz SAN PELAIO	ZARAUTZ
05.47	05.50	05.52	05.55	06.03	06.14	06.19	06.20
06.17	06.20	06.22	06.25	06.33	06.44	06.49	06.50
06.47	06.50	06.52	06.55	07.03	07.14	07.19	07.20
07.17	07.20	07.22	07.25	07.33	07.44	07.49	07.50
07.47	07.50	07.52	07.55	08.03	08.14	08.19	08.20
08.17	08.20	08.22	08.25	08.33	08.44	08.49	08.50
08.47	08.50	08.52	08.55	09.03	09.14	09.19	09.20
09.47	09.50	09.52	09.55	10.03	10.14	10.19	10.20
10.47	10.50	10.52	10.55	11.03	11.14	11.19	11.22
11.47	11.50	11.52	11.55	12.03	12.14	12.19	12.20
12.17	12.20	12.22	12.25	12.33	12.44	12.49	12.50
12.47	12.50	12.52	12.55	13.03	13.14	13.19	13.20
13.17	13.20	13.22	13.25	13.33	13.44	13.49	13.50
13.47	13.50	13.52	13.55	14.03	14.14	14.19	14.20
14.17	14.20	14.22	14.25	14.33	14.44	14.49	14.50
14.47	14.50	14.52	14.55	15.03	15.14	15.19	15.20
15.17	15.20	15.22	15.25	15.33	15.44	15.49	15.50
15.47	15.50	15.52	15.55	16.03	16.14	16.19	16.20
16.17	16.20	16.22	16.25	16.33	16.44	16.49	16.50
16.47	16.50	16.52	16.55	17.03	17.14	17.19	17.20
17.17	17.20	17.22	17.25	17.33	17.44	17.49	17.50
17.47	17.50	17.52	17.55	18.03	18.14	18.19	18.20
18.17	18.20	18.22	18.25	18.33	18.44	18.49	18.50
18.47	18.50	18.52	18.55	19.03	19.14	19.19	19.20
19.17	19.20	19.22	19.25	19.33	19.44	19.49	19.50
19.47	19.50	19.52	19.55	20.03	20.14	20.19	20.20
20.47	20.50	20.52	20.55	21.03	21.14	21.19	21.20
21.47	21.50	21.52	21.55	22.03	22.14	22.19	22.20

00.00 Asteleheneretik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Asteleheneretik Igandera eta JAETAN

ORDUTEGIA Tren							
ZARAUTZ	Zarautz SAN PELAIO	Orio AIA	USURBIL	Donostia ERREKALDE	Donostia ANORGA	Donostia LUGARITZ	Donostia AMARA
06.08	06.09	06.15	06.24	06.30	06.33	06.36	06.39
06.38	06.39	06.45	06.54	07.00	07.03	07.06	07.09
07.08	07.09	07.15	07.24	07.30	07.33	07.36	07.39
07.38	07.39	07.45	07.54	08.00	08.03	08.06	08.09
08.08	08.09	08.15	08.24	08.30	08.33	08.36	08.39
08.38	08.39	08.45	08.54	09.00	09.03	09.06	09.09
09.08	09.09	09.15	09.24	09.30	09.33	09.36	09.39
10.08	10.09	10.15	10.24	10.30	10.33	10.36	10.39
11.08	11.09	11.15	11.24	11.30	11.33	11.36	11.39
12.08	12.09	12.15	12.24	12.30	12.33	12.36	12.39
12.38	12.39	12.45	12.54	13.00	13.03	13.06	13.09
13.08	13.09	13.15	13.24	13.30	13.33	13.36	13.39
13.38	13.39	13.45	13.54	14.00	14.03	14.06	14.09
14.08	14.09	14.15	14.24	14.30	14.33	14.36	14.39
14.38	14.39	14.45	14.54	15.00	15.03	15.06	15.09
15.08	15.09	15.15	15.24	15.30	15.33	15.36	15.39
15.38	15.39	15.45	15.54	16.00	16.03	16.06	16.09
16.08	16.09	16.15	16.24	16.30	16.33	16.36	16.39
16.38	16.39	16.45	16.54	17.00	17.03	17.06	17.09
17.08	17.09	17.15	17.24	17.30	17.33	17.36	17.39
17.38	17.39	17.45	17.54	18.00	18.03	18.06	18.09
18.08	18.09	18.15	18.24	18.30	18.33	18.36	18.39
18.38	18.39	18.45	18.54	19.00	19.03	19.06	19.09
19.08	19.09	19.15	19.24	19.30	19.33	19.36	19.39
19.38	19.39	19.45	19.54	20.00	20.03	20.06	20.09
20.08	20.09	20.15	20.24	20.30	20.33	20.36	20.39
21.08	21.09	21.15	21.24	21.30	21.33	21.36	21.39
22.08	22.09	22.15	22.24	22.30	22.33	22.36	22.39
22.40	22.41	22.47	22.56	23.00	23.03	23.06	23.09

00.00 Asteleheneretik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Asteleheneretik Igandera eta JAETAN

Agenda !

Maiatzak 24, ostirala

- IT txartela ateratzeko azterketa
KzGunean. 16:00-18:00.
- EAren ekitaldi nazionala Sutegin.
20:00etatik aurrera.

Maiatzak 25, ostirala

- Amaia Zubiriaren kontzertua Sutegin,
22:30etik aurrera. Soinurbil zikloa.
Sarrerak aldeztu aurretik 7 euro, Oiardo
kiroldegian. Egunean bertan, takilan, 10
euro.

Maiatzak 26, larunbata

- "Asto bat hipodromoan", Gorringo tal-
dea. 17:00etan Santueneko elkarte-
an. Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.

Maiatzak 27, igandea

- 11:30ean kalean eta 12:30ean frontoian
Erreterriako Musika Bandaren kalejira
eta kontzertua. Soinurbil zikloa.

Eskubaloi taldeek festa batekin

ospatuko dute denboraldi amaiera

Uda gertu dago eta eskubaloi taldekoak festa ederra pres-
tatzten ari dira. Ekainaren 9an egin-
go dute denboraldi amaierako
ospakizuna. Aurten jokatzeko ibili
diren jokalariek, guraso, entrenatzaile
eta klubeko ordezkari guztiak
elkartu eta egun polit bat ospatze-
ko asmotan dabilta. Aurreko urte-
tan jokatzeko ibili diren jokalariek
desafioa bota diete jubenil eta
senior mailako jokalariei. Eta
hauen arteko partidak ere izango
dira ekainaren 9an larunbatarekin.

Nahiko izerdi bota ondoren,
indarrak berritzera Aginaga sagar-
doteigira bazkaltzera joango dira
denak. Bazkaldu ondoren jokalariek
onenen sari banaketa egingo da.

Denak gonbidatuta daude baz-
karitara, lehen eskubaloian ibilita-
koak, orain dabiltzanak edota
ongi pasatzera animatzen den
edozein.

Bazkaritako menua sagardotegi-
koa izango da (kafea barne).
Kadete eta jubenil jokalarientzat,
prezioa 18 eurokoa izango da eta
gainontzekoentzat, 22 euro.

Tiketa erosteko azken eguna, maiatzaren 31

Tiketak aldeztu aurretik hartu
behar dira, usurbilke@usurbil.com
e-postara idatziz edo zuzendaritza-
ko edozeini eskatuta. Bazkarirako
txartela eskuratzeko azken eguna
maiatzaren 31 izango da.

ORDUTEGIA Autobus		Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN	
DONOSTIA	URBIL	USURBIL	ZARAUZ
07:40	>>	08:05	08:25
08:10	>>	08:35	
08:40	>>	09:05	09:25
09:10	09:30	09:35	
09:40	>>	10:05	10:25
10:10	>>	11:05	11:25
11:40	>>	12:05	12:25
12:10	12:30	12:35	
12:40	>>	13:05	13:25
13:10	13:30	13:35	
13:40	>>	14:05	14:25
14:10	14:30	14:35	
14:40	>>	15:05	15:25
15:10	15:30	15:35	
15:40	>>	16:05	16:25
16:10	16:30	16:35	
16:40	>>	17:05	17:25
17:10	17:30	17:35	
17:40	>>	18:05	18:25
18:10	18:30	18:35	
18:40	>>	19:05	19:25
19:10	19:30	19:35	
19:40	>>	20:05	20:25
20:10	20:30	20:35	
20:40	>>	21:05	21:25
21:10	21:30	21:35	
21:40	>>	22:05	22:25
22:10	22:30	22:35	

00:00 Alora jarraitzen du

00:00 Aitak dator

ORDUTEGIA Autobus		Larunbat, Igande eta JAIEGUNETAN	
DONOSTIA	URBIL	USURBIL	ZARAUZ
08:00	08:20	08:25	08:45
09:00	09:20	09:25	09:45
10:00	10:20	10:25	10:45
11:00	11:20	11:25	11:45
12:00	12:20	12:25	12:45
13:00	13:20	13:25	13:45
14:00	14:20	14:25	14:45
15:00	15:20	15:25	15:45
16:00	16:20	16:25	16:45
17:00	17:20	17:25	17:45
18:00	18:20	18:25	18:45
19:00	19:20	19:25	19:45
20:00	20:20	20:25	20:45
21:00	21:20	21:25	21:45
22:00	22:20	22:25	22:45
22:30	22:50	22:55	23:15
NEGUKO LARUNBAT GAUEAN			
00:00	>>	00:25	00:45
01:00	>>	01:25	01:45
02:00	>>	02:25	02:45
03:00	>>	03:25	03:45
04:00	>>	04:25	04:45
05:00	>>	05:25	05:45

00:00 Larunbat lanegunetan bakarrik

ETXEBIZITZA

- Usurbilen pisu bat alokatu nahi dut. Presazkoa da. Deitu telefono honetara: 627285904.
- Bizkarre kalean pisua salgai: 2 komun, sukaldea, sala, 3 gela, ganbara eta gara-jea. 48.000.000 pta. Interesatuak deitu 650938489 telefonora.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea traste-roarekin. Garajea aukeran. 685731792

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. Zozketa batean tokatua denez, duen prezioa baino 400 euro merkeago salduko nuke (1900 euro). 649 356 081.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Usurbilgo kafetegi batean goizez lana egiteko pertsona euskaldun bat behar dugu. Interesatuak deitu 690106070 telefonora.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 362713.
- Arratsalde ezteko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645 403 905.

Lan-eskaerak

- 19 urteko neska usurbildar bat naiz, magisteritzako ikaslea, eta udan umeak zaintzen egingo nuke lan. Interesatuak deitu: 610369330 / 943366220 (Ane).
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak

zaintzeko. 630274906

- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Arratsaldetan lan egiteko mutil bat eskaintzen da. 664 774 024.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Apirilaren 27an kartera bat galdu da Usurbilen edo Aginagan dokumentazioarekin. Norbaitek aurkitzen badu Noaua'n uztea eskertuko genuke. Mila esker
- Apirilaren bukaeran, Askatasuna plazan Nike etxeko erloju bat galdu nuen. Erlojuak korrea urdina dauka. Norbaitek aurkitu badu eskertuko da bueltatzea 943366014 telefonora deituta.
- Inork etxean alfer-alferrik telebista txiki bat edukiko balu, gustora berrerrabiliko genuke Udarregi ikastolan. Bide batez, zaharkitutako vhs bideo reproduktorea ere hautsak jaten ari badizu, guk etekina aterako genioke ikastolan. Telefono zenbakia: 943 361216.

- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa jasotzen ari dena.

Tf: 626 220925.

- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Salgai bixkientzako aulki bat, Red Castle markakoa, osagarri guztiekin: burbuja, zakua... 943 36 07 54 (Ana).
- Gure loritoa martxoaren 7an desagertu zen, haize handiarekin beldurtu egin zen. Ikusten baduzu, mesedez, deitu: 656 734 413 (Ainara).
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- "Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco" Añamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. Telefono zenbakia: 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birrikariak, dena hornitua, ASR... Tf: 610431999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere: Tf: 664 774 024.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna salgai. 676 453 176.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617 242 660/ apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.



Zorionak Ane eta Olatz! Aze bi sorgin, Anek 11 eta Olatzek 8 egingo dituzue. Etxeko guztien partez muxu handi bana eta ondo pasa!



Animo Iker! Maiatzaren 22an lehenengo urtea bete duzu puf!!! Jada urte bat... Zorionak familia eta batez ere lehengusuen partetik mila muxu!



Zorionak Leire! Zorionak etxeko printzesari Lorena eta gurasoen partez. Ondo pasa eta muxu handi bat!



Zorionak bioi! Aurten 6 urte egingo dituzue eta etxekoak zuetaz gogoratu nahi izan dugu. Muxu handi bat eta ondo pasa!!

Oharra: Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, honako telefono zenbakira deitu bulego orduetan: 943 360 321. erredakzioa@noaua.com

JAIOTZAK

- Nora Lavirgen Nogales, maiatzaren 11n.
- Nora Martinez Moto, maiatzaren 13an.

Plis, plas, txalo ta jolas,
Kultur ekitaldiak...

Pirritx eta Pomptx
Ekainaren 19an
pilotalekuan!

www.noaua.com
Edizio Jarraituan

NOAUA! Astekaria
Astero doan etxean

Egin zaitez bazkide
Zure laguntza ere beharrezkoa da

BAZKIDETZA ESKAERA

Izen deiturak:

Jaiotze data: Sexua: NAN zenbakia:

Helbidea:

Herria: Posta kodea:

Bizibidea:

Tel: e-mail:

Banketxea:

Kontu korronteko zkia (20 digitok):

Bazkide KUOTA: 36 € (Uztallean kobratuko da kontu korrontetik)

Informazio gehiago: elkartea@noaua.com • 943 36 03 21

PLIS PLAS TXALO TA JOLAS

Santueneko elkartean: Maiatzak 26 • 17:00

**GORRINGO TALDEAREN
ASTO BAT HIPODROMOAN**

Zubietako frontoian: Ekainak 2 • 17:00

**KILIMISKA ANIMAZIO TALDEAREN
JOLAS TXOKOAK**

Kalezarreko plazan: Ekainak 9 • 17:00

KIKI ETA KOKO PAILAZOAK

Aginagako frontoian: Ekainak 16 • 17:00

**DAR DAR TALDEAREN
EGIZU LO TARTALO**

Kaxkoa, herriko frontoian: Ekainak 19 • 17:30

PIRRITX ETA PORROTX

Oharra: Eguraldi txarra egingo balu,
Kalezarreko ekitaldia haur eskolan egingo litzateke.